

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gaur egun COVIDa gure gizartean pil-pilean dagoen gai bat da, izan ere, eguneroko errutina aldatzea egin digun pandemia mundiala da. Enpresa handiek nahiz autonomoek gainbehera izugarri bat jasan dute, eta horren ondorioz askok beraien langileak kaleratzea eduki dute aukera bakar bezala, galerak ez edukitzeko. Beraz, langabezia-tasa nabarmen igo da SARS-COV-2a hasi denetik, 484.000 biztanleek galdu dute haien lana hain zuzen.

Buruari bueltak ematen geundela, gizarteari laguntza bat eman nahi geniola ondorioztatu genuen. Horregatik arazo hau hobetzeko gure aletxoak jartzea pentsatu dugu, orain azalduko dugun aplikazioa sortuz. Honen helburua, zubilana eginez ondasunak eta zerbitzuak eskuratu, nahiz eskaintzeko prest daudenei, hori egiteko erraztasuna ematea izango da. Horretarako, APP-ean lau hautapen desberdin egongo dira, alde batetik zerbitzuak jaso nahiz eskaintzeko aukera eta bestetik ondasunak saldu nahiz eskuratzeko bidea ahalbidetuko diegu.

Hori egiteko, lehenik zerbait eskaini nahi duten bezeroek, dohainik izango den formulario bat bete beharko dute, haien datuak jarri eta zer emango duten azalduz. Gure bete beharra izango da egoki bete dutela ziurtatzea eta dena ondo dagoela. Hori egindakoa, aplikazioan haien perfila jarriko dugu, eskaintzen dutena azalduz. Gainera, balorazioak egiteko aukera ahalbidetuko dugu, bertan izartxoak betetzeko eta iritzia jartzeko. Geroz eta balorazio hobea eduki, orduan eta postu altuagoak edukiko dituzte, aplikaziora sartzerakoan haien perfilak besteenak baino lehenago azalduko dira. Baina, premium bat eskuratzeko aukera ere edukiko dute, eta hau ordainduz gero, APPera sartzerakoan haien perfilak lehenengotakoak azalduko dira. Horrez gain, ondasun bat erosiz gero erraztasuna, eskuragarritasuna, segurtasuna eta erosotasun emateko, ondasun bat saltzen dutenean, eroslearen etxera guk geuk eramateko ardura hartuko dugu prezio ekonomiko baten truke.

Bestalde, lehen aipatu dugun bezala, bezeroek eskaintzen dituzten ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko aukera emango dugu. Bakoitzak nahi duen prezioan jarri ahalko du, eta horren %15a guretzako izango da, hortik gure diru iturri nagusia lortuko dugu. Gainera, autonomoen iragarkiei esker irabazi gehiago eskuratuko ditugu. Hala ere, hauek kentzeko beste premium bat egongo da, baita wifirik gabeko erabilera edukitzeko ere. Irabaziekin jarraituz, haien zati handi bat hasieran COVIDari aurre egiteko bideratuta egongo lizateke eta hau hobetutakoan GKE-ei, izan ere, ikasleak gara eta gure helburu nagusia ez da soldata on bat eskuratzea, baizik eta elkarlana sustatzea, denon artean laguntzea, jendearen beharrak asetzea eta Euskal Herriko gizartea hobetzea.

Azken honekin erlazionatuta, errealistak izanez, badakigu hasieran Euskal Herri mailan soilik izango garela ezagun. Baina, anbiziosoak garenez, eta gure helburua gizartea hobetzea eta denei laguntzea denez, enpresa Espainia osora zabaltzea izango lizateke hurrengo pausua. Halaber, denok dakigunez, teknologia gure bizitzan guztiz baneratuta dugu, hau egunero erabiltzen baitugu. Beraz, denenegana iritsi ahal izatea errazagoa izango lizateke, eta gainera hizkuntza dezente kontrolatzen dituguez ondo komunikatzeko aukera edukiko genuke. Horrez gain, 24h egongo gara



beraien zerbitzura, inongo mugarik eduki ez dezaten eta zalantza guztiak argitzeko. Horretarako, emailaz, telefonoaz eta aurrez aurreko elkarrizketaz baliatuko gara.

Gu Ane, Endika, Maria, Brandy eta Lune gara, Urretxu-Zumarraga ikastolako bigarren batxilergoko ikasleak, eta STARTinnovak eskaintzen digun aukera aprobetxatuz ZUBI enpresaren proiektua aurrera eramango dugu. Baina zergatik ZUBI? Gure herriak zubi batez lotuta daudelako eta haiei gorazarre egin nahi diegu. Horrez gain, zubilana dugu ardatz, hau da, saltzaile eta erosleen arteko harremana. Horrekin batera bezeroen eta gure arteko elkarlana adierazi nahi dugu. Esan beharra dago, nahiz eta COVIDagatik sortu den enpresa bat izan, etorkizunera begira egonkorra izango dela argi dugu, zoritxarrez, langabeziaren arazoak tente jarraituko duelako.

